

Artezkari-tza-Kontseilua eta Zaintza-Batzordea osatzen duten kideak

Udarregi Ikastolako Artezkari-tza-Kontseilua eta Zaintza-Batzordea nortzuk osatzen duten jakinarazten dizuegu.

Artezkari-tza-Kontseiluarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, idatzi artezkaritza@udarregi.eus helbide elektronikora.



Miren Alberdi Saioa Erro Mikel Castresana Urko Zurutuza Ainhoa Azpirotz Lis Gurrutxaga
Lehendakaria Lehendakari ordea Idazkaria Ahozkoa Ahozkoa Ahozkoa



Ainhoa Salsamendi Joxemari Gonzalez Jaione Eskudero Beñat Larrañaga Nerea Tolosa Nerea Eraunzetamurgil
Ahozkoa Ahozkoa Ahozkoa Udal-ordezkaria Gerentea Zuzendaria

Artezkari-tza-Kontseiluak Kooperatibaren ordezkotza egitea du helburu. Ikastolako gobernu eta gestio organoa delarik (ikus Estatutuak 2004). 9 partaide titularrek osatuta dago Batzar Orokorrean onartu ondoren. AK partzialki berriztatzen da, urtero herena.

Zaintza-Batzordearen funtzioa da Batzar Orokorriari aurkeztu baino lehen, urteko kontuak ikuskatu eta horiei buruz soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz aginduzko txostena egitea, Kooperatibaren urteko kontuak ikuskatzen direnean izan ezik, Kooperatibaren Liburuak ikuskatzea, Ordezkaritza agirien egokitasuna ikuskatzea eta, oro har, batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantza edo gorabeherak erabakitzea. Batzorde horren kideak hauek dira: Jon Kortxa, Aitor Pikabea eta Elixabete Udabe.

Guraso-bilerak

Urtero bezala, aurten ere guraso bilerak egingo dira. Data, ordua, lekua, txostena, balorazio galdetegia, ... [webgunean](#) egongo dira ikusgai. Txostena irakurrita etortzea gomendatzen da. LH-ko bilerak bukatu direnez, eskertuko da balorazio galdetegia betetzea. Antolaketa erraztearren, Alexia bidez jasoko duzuen galdetegia bete beharko duzue bilerara joan behar duzuen ala ez.



Jangela-zerbitzua

❖ Jangela-batzordea, bilera

Jangela-Batzordea berrabiaraztea gustatuko litzaiyuke jangela-batzordearen funtzionamenduaz, antolaketaz eta menuen gaiari jarraipena egiteko. Horrexegatik, **Udarregiko eraikin gorrira** etortzera gonbidatzen zaitugu datorren **asteartean, urriak 4, 15:30ean**.

❖ Urriko menua

Urriari jangela erabiltzaileek izango duten [menua](#) hemen ikus dezakezue.

❖ Funtzionamendu oharra

- Jangela egun solteetan erabili ahalko da. Izen-emateak gutxienez bezperan 13:00ak baino lehen idazkaritzara deituz edo usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz egin daiteke.
- Jangelan izena eman ez duenari, bazkaltzeko aukerarik ez zaio ziurtatuko.
- Egunero finko joango den ikasleari, jangelan geratu ezin duen egunagatik menuaren zenbatekoa deskontatuko zaio, baldin eta bezperan 13:00ak aurretik oharra idatziz eta sinatuta idazkaritzara ekartzen badu edo e-maila bidaltzen badu usurbil@ikastola.eus helbidera.
Deskontua ez da aplikatuko irteera kasuan, hileko prezioan (H4 eta H5) kontuan hartuta baitago lehendik.
- Jakinarazten dizuegu, 2005-2006 ikasturtean Artezkaritza-Kontseiluan erabaki zela, ikasturte osorako jangela zerbitzuan izena emanda dagoen erabiltzaileak, baja emanez gero, zerbitzuaren kostu errealagatik likidazioa egingo zaiola.
- Ikasturte honetan ere, bi txandatan antolatu dira: Lehenengo txandan HH 3tik LH 2rako eta DBHko ikasleek bazkalduko dute 12:30ean eta bigarreanean LH 3tik LH 6rako ikasleek, 13:15ean. Ikasleek beraien bazkaltzeko txanda errespetatu beharko dute, aldaketarik ez baita onartuko.



Garraio-begiraleen ordezkapenatarako lan-poltsa

UDARREGI Ikastolak, autobus begiraleen ordezkapenatarako lan-poltsa osatu nahi du: Ezinbesteko baldintza: euskara jakitea.

Lehentasuna izango dute:

- Ikastolako guraso direnek.
- Usurbildarrak direnek.

Lanaren ezaugarriak:

- Ikastolako autobusa hartzen duten ikasleen zaintza-lana egin.
- Autobuseko lau bidaietan ikasleen zaintza.
- Lan-ordutegia:
 1. 8:20tik 9:00etara.
 2. 12:30etik 13:00etara.
 3. 13:50etik 14:30era.
 4. 16:30etik 17:00etara.

Lan horretan interesaturik bazaude edo informazio gehiago jaso nahi izanez gero, ikastolara deitu (943-36 12 16 Ikastolako idazkaritza)

Ikasketa-beka

Gaur amaituko da 2022/2023 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea. Informazio guztia [hemen klikatuta](#) ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagorako, idazkaritzarekin jarri harremanetan.

Era berean, Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka-sistema propioa eskainiko die bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak [hemen klikatuz](#) irakur daitezke.



Kilometroak 2022

Igande honetan Ibarra ospatuko den Kilometroak festaren [egitaraua](#) helarazten dizuegu. Bertaratu eta festaz gozatu!!

[Tren ordutegi berezia](#) izango da.



Eskola-kirola

- ❖ **Hasiera data:** 2022-2023ko ikasturterako Zirimaran (LH 1, 2, 3, 4) futbol-eskubaloian (LH 5-6), eta esku pilotan (LH1-DBH2) izena emanda daudenak **urriaren 3ko asteen hasiko dira.**

Gurasoekin egingo ditugun bileren berri aurrerago emango zaizue. Edozein zalantza argitzeko, eskolakirola@udarregi.eus helbidera idatzi.



❖ **Dirulaguntzak:** Eskola kirolean izena ematen duten familiak, Usurbilgo Udalak eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzeko ahalbidetzen dituen dirulaguntzez balia daitezke.

Eskaerak aurkezteko leku eta modua: presentzialki (Udaleko Erregistro Nagusian) edo telematikoki (udalaren zerbitzu telematikoko dirulaguntzak atalean www.usurbil.eus).

Eskaerak egiteko epea: **irailaren 1etik urriaren 28ra.**



Usurbilgo Udala

Dagoeneko izena eman daiteke Euskaraldian!

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean ospatuko da Euskaraldiaren hirugarren edizioa Usurbilen, eta herritarrek dagoeneko izena eman dezakete Ahobizi edo Belarriprest gisa. Horretarako, klik egin lotura honetan:

<https://izenematea.euskaraldia.eus/>

Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa egiteko prest?

- Ahobizi jokaera hautatzen baduzu, 15 egunetan zehar, euskara ulertzen duen orori egingo diozu euskaraz.
- Belarriprest jokaera hautatzen baduzu, 15 egunetan zehar, euskaraz zuzentzeko eskatuko diozu hitz egiteko gai denari.

#HitzezEkitekoGaraia #Euskaraldia #Usurbil



HAUR HEZKUNTZA

Baso-eskola

Iaz bezala, aurten ere Baso-eskolaz gozaten jarraituko dugu, baina eremua prestatzeko gurasoen laguntza behar dugu. Beraz, auzolanerako deialdia egin nahi dugu **biharko**, urriak 1, **larunbata**. Goizeko **9:00etan Mahaspildegiko aparkalekuan** bilduko gara.

Egin beharreko lanak honakoak dira:

- Erreka arroa garbitu.
- Bertan dauden kainaberak pilatu.
- Zaborra bildu.

Lanerako beharko ditugun erremintak:

- Eskularruak
- Aitzurrak eta palak
- Zakarrak biltzeko ontziak
- Orgak(karretillak)

Aurrez, parte hartzera animatzen zaretenoi gure eskertza adierazi nahi dizuegu ikastolatik.

Mila esker!



LEHEN HEZKUNTZA

Baso-eskola

Iaz bezala, aurten ere Baso Eskolaz gozaten jarraituko dugu, baina eremua prestatzeko gurasoen laguntza behar dugu. Beraz, auzolanerako deialdia egin nahi dugu **biharko**, urriak 1, **larunbata**. Goizeko **9:00etan Mahaspildegiko aparkalekuan** bilduko gara.

Egin beharreko lanak honakoak dira:

- Erreka arroa garbitu.
- Bertan dauden kainaberak pilatu.
- Zaborra bildu.

Lanerako beharko ditugun erremintak:

- Eskularruak
- Aitzurrak eta palak
- Zakarrak biltzeko ontziak
- Orgak(karretillak)

Aurrez, parte hartzera animatzen zaretenoi gure eskertza adierazi nahi dizuegu ikastolatik.

Mila esker!



Zorriak

LH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LH 5eko ikasleen irteera

Datorren asteen, hilak 6 eta 7, **osteguna eta ostirala**, 5. mailako ikasleek **Allora** (Nafarrora) bi egunetako irteera izango dute. Eraman beharrekoa irakasleek jakinaraziko diete ikasleei. Beti bezala, 16:30etarako bueltan izango gara.



DBH

Egutegia

Datorren **astelehenetik**, urriak 3, DBH-ko ikasleek astelehen, astearte eta ostegunetan, klaseak goiz eta arratsaldez izango dituzte (8:25 – 12:30 eta 14:30 – 16:30), asteazken eta ostiraletan, aldiz, jardunaldi jarraia (8:25 – 14:30) izango dute.

